

Auzoko emakumeak suspertu nahian

Martxoaren 8ak hasiera emango dio Intxaurrondoko Emakumearen Asteari. Intxaurrondo Berri Emakumeen Elkarteak, Lagunak Etxandre Elkarteak eta Garraldi Gizarte Zentroak, urtero bezala, egitarau zabala osatu dute.

A.Z

Emakumearen Astearen haritik Intxaurrondoko emakume elkarteetako kideekin aritu gara solasean

Lagunak Etxandre Elkarteak ia-ia auzoarekin batera jaio zen duela 20 bat urte. Elkarteak kide Rosa Vidalek dioskunez, "azken urteetan emakumearen

asteak arrakasta gutxi izan du. Jende gutxi gerturutzen da ekitaldietara. Halere, guk ez dugu amore ematen, eta aurten ere egitarau erakargarria osatu dugu".

Intxaurrondo Berriko emakumeen elkarteak, aldiz, orain dela hamabi bat urte jarri zen abian. Hasieran elkarteak egoitza lortzeko komerikak izan zi-

Intxaurrondoko Emakumearen Astearen egitaraua

Ostirala 8 Afaria Trinketea jatetxean

Larunbata 9 Lauaxeta laukotearen flauta emanaldia. Santu Guztien parrokiak, 20.00etan.

Astelehena 11 Emakume ausartak taldearen "Actrices" antzezlanak. Larrotxene kultur etxean, 18.00etan.

Asteartea 12 Bideo-foruma. Moderatzailea: Chus Bragado. Larrotxene kultur etxean, 17.00etan.

Asteazkena 13 Solasaldia. Hizlaria: Mercedes Alday abokatua.



tuen. Duela zazpi bat urte, ordea, Udalarik lokal bat eskatu eta lortu egin zuten. Egun elkarteakideak Buztintxulo kaleko egoitzan biltzen dira, beraien asmoa egoitza handiagoa lortzea den arren.

Etorkizunari begira bi dira elkartearen erronkak: kideen parte hartzea bultzatzea eta aldi berean emakume gazteak erakartzea. Intxaurrondo Berriko elkarteak kideak bat dazotzen Lagunak Etxandrekoekin duten nahiarekin: "elkartekideen arteko harremana bultzatu nahi dugu, elkarteak bizitasuna gal ez dezan".

Intxaurrondorako proiektuak aztergai

Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkarteak batzarra egingo du hilaren 12an, asteartea, Artzak Ortzeko elkartearekin. Udarak Intxaurrondorako aurreikusituen proiektuak eta auzoaren gabeziak izango dira bileraren ardatzak. Besteak beste, trenbidea estaltzeko egitasmoa edota Garro zubirako aurreikusita dagoen oinezkoentzako pasabidea izango dituzte aztergai auzotarrak. Bilera arratsaldeko 19.30etan hasiko da.

Gizarte, Kultura, Teknika eta Zientziari buruzko VI. Jardunaldiak

ZIENTZI IKERKUNTZAREN MUGAK XXI.MENDEAREN HASTAPENETAN



Asteartea, martxoak 12

- 18:00etan, Kimikaren erronkak eta aukerak XXI.mendearen atarian: Teknologia versus Filosofia. Jesus M. Ugalde (EHU)
- 19:30etan, Unibertsio eta materia: Mugak eta Desafioak Alberto Galindo (Madrilgo Complutense Unibertsitatea)

Asteazkena, martxoak 13

- 18:00etan, Espiralak, zenbakiak eta helizeak. Matematikazko bukaerarik gabeko muga Juan Carlos Peral (EHU)

- 19:30etan, Zientzia etikaren muga berriak Evandro Agazzi (Genoako Unibertsitatea)

Osteguna, martxoak 14

- 18:00etan, Biologiaren gaur egungo mugak José M^a Maraculla (EHU)
- 19:30etan, Mundu zoriontsu baterako Zientzia? C.Ulises Moulines (Municheko Unibertsitatea)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legearen Gabeziak Erabazteko

